

Dena apaltasun handiz bizitua

Euskaldunon Egunkaria, 1993-03-30: 10.

Gaur zortzi, joan den asteko asteartean, bere Milafrangako (Lapurdi) etxean hil zen Julian Ajuriagerra psikiatra bilbotarrarekin Martin Ugalde EGUNKARIAko Administrazio Kontseiluko lehendakariak orain zortzi urte izandako solasa da ondokoa. Apaltzat baina aldi berean Euskal Herriak eman duen zientzilaririk handientzat jo du Ugaldek.

Bere laneko mundu horretan egon zen geroztik, hara zergatik etxean gurasoengandik eta Otxandion ikasitako euskara, osorik galdu ez bazuen ere, ez zen, orain zortzi urte, 1985ean, ETBrako egin nituen elkarrizketen artean Julianena zen preziatuetako bat egiteko gauza izan; ni neu ahalegindu nintzen, baina Julian ez zen euskaraz egitera ausartu. Hala ere, lehen elkarrizketatxo hau euskaraz egin genuen:

– Zer ari zara idazten?, galdetu nion.

– "Liburu bat, aspaldi honetan hauxe ari naiz egiten, hau da nire erretiroa; lehen egiten ari nintzanean jarraitzea, hau da, haurren lehen urteetako mintzairaren eta sentipenaren eboluzioa aztertzea, eta, ulertuko duzu, neuk ezin dizut gai horiez euskaraz egiten jarrai, zoritxarrez, nire euskara ez da hainbesterako gauza".

– Ulertzekoa da, goazen erdal klabeen jarraitzera, zeure hizkuntza profesionala frantsesa da, noski...

– "Bai. Frantzian eta Suitzan egin dut lan nire bizi guztian, gaztelera, berriz, zeuk bezala, eskolan ikasi nuen Parisera etorri aurretik".

– Zeure kasuan, Batxilergoa amaitu artean.

– "Halaxe da".

Zoritxarrez, oztopo hau dela eta utzi genuen Ajuriagerra jaunarena filmatu gabe.

Baina hala ere, jaso nahi izan nuen erdaraz gizon handi honen esperientzia, eta erabaki honi esker eman dezaket gaur orduan jaso nuena.

Zergatik psikiatria aukeratu

Haurra zenez gero deitu zion gai honek: gizakiaren portaera, eta batez ere, afektibitatea; zergatik pertsonen arteko maitasunaren lokarri hau, batez ere, ama eta semearen artekoa.

– Nork eragin zizun gehien bide honetan?

– "L'Hermitage doktore jaunak. Bera izan zen nire lehen tesiaren zuzendaria. Gero, 1937an sartu nintzen sendagile bezala Henry Rousselle Ospitalean, Parisen, sortu nuen kontsultategi bat eta haurren motrizitatea eta lengoaia ikertzeko talde bat".

– Hau, 1937, Gerra Zibila gure herrian erabaki zen urtea da, Bilbo erori...

– "Ongi dakit hori. Gerrak ni ere harrapatu ninduen, ezin nuen ihes egin, noski, eta erabaki bat hartu nuen. Euskadira itzultzerik ez zegoenez, Kataluniara joatea, nire anaia Juanen babesik gabe pertsonalki aurre eman nahi izan nion askatasunaren auzi pertsonalari, ezezagun nintzen leku batean, neuk borroka hori ulertzen nuen modura".

France emakume argi eta eragilearekin ezkondu egin zen laister, eta bere familia berriarekin irten zen Frantziatik.

– "Bai, 1963an izan zen. Brusela eta Geneba arteko aukera jarri, eta hala joan nintzen Geneban psikiatria erakustera, eta denbora berean zeuk ezagutu ninduzun Psikiatriako Klinika Unibertsitarioa den Bel Aireko buru bezala lan egin nuen urtetan".

– Hemen ezagutu zenuen soziologo eta pedagogo ospetsua zen Jean Piaget suitzarra.

– "Bai, eta elkarrekin lanak ere egin genituen. Gizon eta zientzilari handia zen".

Honetaz eta Bel Aireko esperientziaz idatziak utzi ditu hainbat liburu... Bere dibulgazioko obra bat aipatzea eskatu nionean, 'Manual Psiquiátrico del Niño', aukeratu zuen. Pedagogiari eta ikerketari dagozkienak beste alor garrantzitsua betetzen dute, eta itzulpenak egin dira ingelesara, italierara eta espainolera ere bai, noski. Baita portugesera ere.

– Zure alor nagusia, zein da?

– "Afektibitatearen gai nagusia, eta hau, oraindik jaio ez den haurrarengandik hasi eta bi urte betetzen dituen artekoa".

Gaia zientifikoa eta hitz laueta jartzea zaila bada ere, hara Ajuriagerra doktoreak aipatzen dituen bere ikerketaren inguruan puntu nagusi batzuk jaso banituen ere, ez da unea eta lekua oraingo honetan sartzeko.

Hitz hauek gera daitezen gaurkoz gizon zintzo eta zientzilari argi eta langilearen lekuko.

Lehen esan dut berea zen herri honek, Euskal Herriak, ez ziola, beharbada, merezi zuen tratu berezirik eman, aipa dezadan, ordea, Joxe Migel Barandiaranekin batera Euskal Herriko Unibertsitateak izendatu zuela. 1978an bertoko *Honoris Causa* doktore.